

## Omenaldiak

Antton Azkargorta

*Euskaldunon Egunkaria*, 1999-12-26: 3.

Ekitaldi berean, agintari politiko eta unibertsitarioen partizipazioarekin, Goiriena eta Etxenike jaunei Unibertsitateko urrezko domina eman eta Martin Ugalde Honoris Causa doktore izendatu zuten. Bilkuran, Ugalderi egiten zitzaion ohorearen zergatia azalduz, Salaburuk hauxe esan zuen: "Argi eta garbi ikusi zuen Martin Ugaldek, beste askok baino lehenago, komunikabideak direla euskararen biziraupenaren zutabe. Horregatik aitzindari izan da eta horregatik euskara hutsezko egunkaria sortzearen aldeko izan zen hasiera-hasieratik"

Paradoxikoa da hitzok proiektuaren kontra azaldutako baten ahotik entzutea publikoki. Hauek esan zituen orduan: "Nire ustez goizegi dugu honelako zereginetan hasteko...", eta ondoren ahozgoran eman zituen proiektuaren kontra hamarkada oso batean behin eta berriro errepikatuak izango ziren argudioak: diru eza, politizazio gehiegizkoa, astekariaren lehentasuna... Izan ere, Salaburu ez da, ezta pentsatu ere, berak ezer ikusi ez arren aitzindariaren batek zerbait ikusten duenean ixilik egoten diren horietakoa. Berak "argi eta garbi" ikusten duten horiek ederki jipoitzen ditu, badaezpada.

Goirienari emandako dominaren txandan, berriz, Salaburuk "unibertsitario errenazentista" deitu zuen. Eta gutxi bailitzan, "Unibertsitatea ez da jabetzen gizon honi zenbat zor dion" gehitu zuen. Batzuk bai, jabetzen gara: Protecsa enpresa paramilitarraren kontratazioa, poliziarri campusean nahi adina sartzeko baimena ematea, irakasleen despido eta erbesteratzea, adierazpen askatasuna ezabatzea, fakultateak ixtea... Ez al da egundoko zentzugabekeria pertsonaia nefasto hori Europa Erdi Aroko ilunkerietatik ateratzeko hainbeste lan egin zuten haiekin konparatzea?

Ugalde saritzean ez ote da UPV, herri honen kontrako hainbeste astakeria egin ondoren, bere burua garbitzen saiatu? Euskara eta euskal kulturaren alde hainbeste lan egin duen pertsona duinak, hain gutxi egin duen UPVren aurpegia alda dezake? Tristetu egin nau benetan, ekitaldi berean duintasunaren figura, beste pertsonaia txaketero, zital eta egur banatzaile batzuen ondoan ikusi behar izateak.